

Iñaki Goirizelaia
UPV/EHUko errektorea
2015/09/10

Lehendakari jauna,
Eusko Legebiltzarreko presidente andrea,
Arabako diputatu nagusi jauna,
Alkate jauna,
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburu andrea,
Errektoreak,
Beste unibertsitateetako ordezkariak,
Agintari jaun-andreak,
Irakasleak,
Ikasleak,
Administrazio eta Zerbitzuetako langileak,
Eta jaun-andreak

Empieza un nuevo año académico y, como es habitual en este acto de apertura de curso, quiero comenzar mi intervención deseando, a todas las personas que integran nuestra comunidad universitaria, el mayor éxito en su labor. También quiero agradecerles de todo corazón el trabajo realizado, porque gracias a él la Universidad del País Vasco ha avanzado en los últimos años, mejorando su reconocimiento estatal e internacional.

Por eso, hoy quisiera reconocer ese compromiso, personal y profesional, que asume diariamente nuestra comunidad universitaria. Compromiso con la sociedad vasca, y en particular, compromiso con el alumnado al que formamos y con el futuro que debemos construir.

Hace aproximadamente 2.500 años Confucio dijo: *“Si tu objetivo es progresar en un año, siembra trigo. Si tu objetivo es progresar en 10 años, planta árboles. Si tu objetivo es progresar a lo largo de 100 años, educa a tus hijos e hijas”*.

Entre las alternativas que plantea el filósofo, la UPV/EHU ya ha elegido. La Universidad del País Vasco mira hacia el futuro. No podemos permanecer inmóviles, no estamos simplemente mirando a este nuevo periodo académico. Cada persona y cada institución debe plantearse elecciones muy concretas y la UPV/EHU ha elegido: una apuesta ambiciosa, sin

acomodarse al presente y proyectándose hacia el futuro a través de la educación integral de las nuevas generaciones.

La nuestra es una universidad pública; una universidad consciente de que la formación del alumnado mediante un modelo educativo propio es la gran actividad que debe atender de forma prioritaria; una universidad que apuesta por la investigación como una de sus actividades fundamentales; una universidad comprometida con el entorno, lo cual supone un firme enraizamiento en la sociedad vasca y en su cultura, una universidad que mantiene y defiende esas raíces; pero que muestra un compromiso no menos sólido con la internacionalización; una universidad, por tanto, abierta al mundo, en relación con toda la comunidad académica internacional, que apuesta por la movilidad y que es sensible a otras culturas; una universidad, en fin, que aspira a mantener el liderazgo intelectual en nuestro entorno, a través de la crítica y la autocrítica, la participación en los debates políticos y sociales, la expresión de distintas ideas, opiniones y concepciones del mundo; una universidad, por último, dotada de un compromiso ético y social, materializado en la responsabilidad social que inspira toda su labor.

Son esos principios, esa visión de sí misma como universidad comprometida con la sociedad, lo que define nuestro trabajo y marca nuestra identidad. Principios en los que se funda todo un proyecto universitario diferenciado, que es el que da sentido a la Universidad del País Vasco.

Esa identidad en construcción se va desarrollando, a su vez, en proyectos académicos o sociales, alguno de los cuales presentaré a continuación.

Uno de los ejemplos más significativos de nuestra mirada al futuro, sin duda, es la propuesta que hemos realizado para reorganizar nuestros centros. La UPV/EHU ha demostrado que es capaz de cuestionar su estructura y de adoptar decisiones de gran calado. Gracias al proceso de reorganización de centros estamos mejor preparados para competir internacionalmente y fortalecer nuestro liderazgo en todos los ámbitos del conocimiento. Podremos ser más atractivos y podremos, también, desarrollar de manera más adecuada, todos los proyectos que se proponga nuestro alumnado, profesorado o personal de administración y servicios.

Además del continente, también deberíamos hablar del contenido. Así, durante este año académico diseñaremos el Plan Estratégico de los Estudios de Grado. El debate entre las fórmulas 3+2 y 4+1 nos preocupa, por supuesto. Pero lo más importante, lo realmente decisivo, es que la oferta académica de nuestra universidad responda a las necesidades de la sociedad vasca, y que lo haga sin que por ello aumente el coste que supone al alumnado.

Queremos abrir un proceso de reflexión que permita asegurar ese objetivo. Todavía no ha transcurrido el tiempo necesario para valorar de manera adecuada la oferta académica actualmente vigente. Por tanto, debemos obrar con prudencia, pero al mismo tiempo con decisión e ideas claras: así, valoraremos los resultados obtenidos y, a continuación, diseñaremos el Plan Estratégico de los Estudios de Grado, con criterios propios y en colaboración con todos los agentes implicados.

Ya que me he referido a esta cuestión, no quiero dejar de mencionar que todos los grados de la UPV/EHU y los 55 másteres evaluados hasta la fecha han superado el examen de la agencia de evaluación Unibasq. Enhorabuena, por tanto, a nuestros centros, a los responsables de los programas de postgrado y a toda la comunidad universitaria, porque ese resultado excelente es fruto de un trabajo no menos excelente.

Otra de las apuestas de futuro se asienta en torno a los estudios de postgrado. Para articular esa vertiente de nuestra oferta, hemos establecido tres criterios principales: el binomio formación-investigación, el vínculo con el territorio y la internacionalización.

Hemos realizado un análisis profundo de la actual oferta en ese campo. Esperamos consolidar nuestras fortalezas y superar las debilidades, siempre en colaboración con los responsables de cada uno de esos títulos. Si la UPV/EHU quiere seguir en un futuro en la liga de los mejores, una de las claves para conseguirlo reside en la oferta de los estudios de postgrado. Ya que sabemos que es ahí donde, en gran medida, en un plano internacional, se diferencian y distinguen los proyectos universitarios.

También a lo largo de este año académico evaluaremos los resultados del Plan de Investigación vigente y acometeremos la elaboración del nuevo. Durante los últimos años, y a pesar de las difíciles condiciones presupuestarias, hemos realizado un esfuerzo especial para no reducir la producción científica. De momento, además de mejorar ligeramente nuestra posición en el ranking de Shanghái, también hemos conseguido mejorar los resultados de la actividad investigadora. Podemos, por tanto, mostrar cierta satisfacción, aunque debemos seguir mejorando.

No puedo dejar de mencionar nuestro compromiso con la lengua vasca a través del Plan de Euskara, en cuyo marco intentaremos resolver carencias que se han manifestado en centros concretos, y sin olvidarnos de la consolidación de otros idiomas, especialmente el inglés, a través del Plan de Plurilingüismo.

Somos una universidad socialmente responsable, seguimos avanzando en políticas de igualdad de mujeres y hombres, y seguimos construyendo una universidad, participativa, inclusiva, sostenible y saludable.

De cara al alumnado, la UPV/EHU no fabrica empleados, no trabajamos sólo por el empleo, por la obtención de un puesto de trabajo, sino por la

empleabilidad. Preparamos personas capaces de responder a las necesidades sociales o empresariales del próximo año, pero también a las necesidades de la próxima década y que hoy no podemos anticipar. Siempre, bajo ese principio de responsabilidad social que nos impone una manera de ser, una manera de actuar, comprometida con nuestro entorno. En definitiva, la formación de personas competentes, con conciencia crítica, flexibles pero también éticamente responsables. En la consecución de este objetivo el proyecto EHUalumni será una de las claves, iniciativa que quiere reunir a los más de 300.000 profesionales que ya se han formado en nuestras aulas.

Pero además de trabajar de cara al futuro, nuestra labor cotidiana también da frutos ahora mismo, tanto en enseñanza como en investigación. A menudo me pregunto cuál es nuestro acicate. ¿Qué nos impulsa a investigar? ¿Qué hace posible que los resultados de nuestra investigación comporten un beneficio social?

Existen diferentes vías para impulsar la actividad investigadora. Voy a referirme a una de ellas: la emprendida en 1971 por el presidente de los Estados Unidos, Richard Nixon. Nixon decidió por decreto que los investigadores encontraran una vacuna en contra del cáncer. Dictó una norma, asignó un presupuesto y ofreció una rueda de prensa. ¿Qué sucedió después? Lo que todos conocemos. El cáncer sigue matando hoy día. Si algo subraya esta anécdota es que, en la ciencia, en la investigación, los resultados no se obtienen por decreto.

Recientemente he tenido ocasión de conocer a un profesor japonés euskaldun. Algo especial para nosotros, qué duda cabe. Me comentó que estaba traduciendo al japonés el primer libro editado en lengua vasca: *Linguae Vasconum Primitiae* de Etxepare.

¿Por qué has aprendido euskera? ¿Qué es lo que motiva a un profesor e investigador japonés a aprender una lengua tan lejana?, le pregunté. Me gustó mucho su respuesta. *"He decidido aprender euskera por curiosidad intelectual"*. No puede haber una respuesta más hermosa. Curiosidad intelectual, sí. Ese es el verdadero motor de la universidad. Ese es el verdadero motor de la investigación. Ese es el verdadero motor en cualquier ámbito social.

Voy a atreverme a añadir los valores éticos a la curiosidad intelectual. Sí, la curiosidad o la inquietud intelectual, junto a los valores éticos, son los que alientan el progreso social. Cuando esos dos factores confluyen se obtienen frutos y, como he expresado anteriormente, esa visión ética, social, de nuestro trabajo forma parte principal de nuestra identidad universitaria.

Quiero ofrecer unos ejemplos concretos, palpables, de los resultados que día a día consigue la Universidad del País Vasco. Les invito a viajar conmigo.

Les pido que, en esta ocasión especial, hagan un esfuerzo para emprender ese camino. Quizá les ayude cerrar los ojos de vez en cuando. Allá vamos.

Bidaia Leioa-Erandioko gunean hasiko dugu. Herri txiki baten gaudela ematen du. Campusean egunero ia 16.000 pertsona mugitzen dira ikerketa, irakaskuntza, adierazpen eta kritika askatasunaren babesean, beste bi campusetan lez. Campusa guztiz eraldatuta dago, zaharberritua, modernoa, azpiegiturak eta zerbitzuak gaurkotuak. Urtea amaitu baino lehen Zientzia Parkeko ikerketarako azpiegitura berriak abian egongo dira.

Ziur aski, zuetariko batzuek Leioa-Erandioko gunearen duela 15 urteko irudia izango duzue buruan. Mesedez, une batez irudi hori gogoratu eta orain zer daukagun ikusi. Aldaketa ederra ezta?

130 aldaerako 1.700 zuhaitz eta 6.000 zuhaixka baino gehiago dituen Arboretumetik gabiltzala, bertan dauzkaten animalien gorpuetan intsektuen bila dabilen ikerketa talde bat aurkitu dugu. Taldearen ikerlari nagusiak egiten duten lana azaltzen digu: *"Intsektu nekrofago baten zikloa ixten eta garapen-denbora kalkulatzeko aitzindariak izan gara Iberiar penintsula osoan. Bai eta gorpuen kolonizatzaile diren intsektu nekrofagoen banaketa-mapa eta sekuentziario molekularra egiten ere. Erailketak argitzeko funtsezko laguntza ematen diegu polizia zientifikoei auzibideetan."* CSI telesaila datorkit burura baina ez, hau ez da pelikula bat, hau errealitatea da.

Filmez ari garela, Leioan lanean ari den beste ikerlari gazte batek lortutakoa datorkit burura, alegia, euskaraz egindako lehen filmaren aurkikuntza. Eta hori gutxi balitz, aurkikuntza horretan oinarrituta doktore tesia defenditu du. Tesi hau iaz defenditutako 479 tesietako bat da.

Europan bizitzen ari garen etorkinen egoera onartezin eta mingarria present dugun honetan, beste pelikula bat datorkit burura, gure irakasle batek etorkin afrikar baten kezken inguruan egin zuena. Filmak animazioko Goya Saria irabazi zuen.

Lehen aipatu dudan bezala minbiziak oraindik hil egiten du. Leioa-Erandioko guneko hainbat ikerlarik minbiziaren aurkako borrokan ikerketan dihardute, bai diagnosian, bai terapian. Garrantzi handikoak izan dira, adibidez, melanoma goiz detektatzeko garaturiko diagnosi-metodoa eta eginkarietako ezkutuko odol testen eraginkortasuna koloneko minbizia hautemateko edo markagailu genetikoen bidez tratamendu pertsonalizatuak doitzeko eman dituzten urratsak.

Azken urteotan osasun arlokoak ez diren ikerlariak ere ari dira ikerketa esparru horretan. Esaterako, minbizi solidoak suntsitzeko

nanopartikula magnetikoen bidez garatzen ari diren terapiaren proiektuan.

Leioatik Unbe mendirantz abiatzen gara eta kostaldera bidean aranaren bista ederra daukagu. Hondartzan dagoen unibertsitateko Plentziako Itsas Estazioa nazioarte mailan itsas ekosistemen osasuna ikertzen erreferentzia bihurtu da, jadanik.

Saltillo gure eskola-ontzia Plentziako badian dugu itxaroten. Gainaldera igo eta, gure bidaiarekin jarraitzeko prest gaude.

Badiatik Bilboko portura goazen bitartean, kostalde paregabeaz gozatzeko beta dugu. Aingura bota dugu eta bertatik Getxoko Gorrondatzeko hondartzara gerturatu gara. Ikerlari talde bat eguzkiaren eguneko azken minutuez gozaten ari da ostertzari begira. Azken hamarkadan itsaslabarraren sekzio estratigrafikoak sakontasunez aztertu ostean, azken 50 urteetan indarrean egon diren denbora geologikoen eskalak zuzentzea eta ordezkatzeari lortu dute. Berriketari ari dira, pozik, lortu dutena baloratzen eta lortu dutenaz gozaten.

Aingura altxa eta Bilboko porturantz abiatu gara. Algortako Portu Zaharra pasatu eta Ereaga hondartzaren liraintasuna agertzen zaigu begien aurrean. Hondartzatik gertu, aldazio batzuk ikusten dira. Bertan berritze lanetan daudela susmatu daiteke. Bai, hala da, Punta Begoñako zaharberritze lanak dira eta, hantxe diziplina anitzeko gure ikerketa talde bat bere onena ematen ari da inguru hori berreskuratzeko. Kimikariak, arkeologoak, arkitektoak, geologoak...

Saltillok bere bidaiari segitzen du. Bizkaiko Zubiaren azpitik igaro eta iraganeko industriaren aztarnak ikusten hasi gara. Zenbat proiektu, zenbat ikerketa lan, zenbat egresatu, zenbat elkarlan! UPV/EHU sortutako zenbat profesional aritu dira Bilboko itsasadarraren bazter bietan!

Bidaia jarraituz gure abar aldera ekonomia eta enpresa zientzien ikerlariak daudela konturatzen gara. Arlo horretan, besteak beste, langabeziaren arazoien diagnostikoa hobetzeko lan egin, pentsio sistemaren iraunkortasuna aztertu edota zerga-iruzurra eta lehiakorak izateko zerga sistema egokiak analizatzen dira.

Sarriko atzean utzirik, Euskalduneko zubiaren ondoan atraka dugu Saltillo. Donostiara joateko autobusa hartzea erabaki dugu San Mames ondoko Termibusen. Autobus txartela hartzeko zain gaudela, UPV/EHUK San Mames inguru horren eraldaketan izan duen paperaz jabetzen gara. Erreza izan ez zen arren, erakunde ezberdinek (Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak) elkarlanean jardun genuen gune hori guztiontzat etorkizuneko proiektu bat bihurtzeko, gurean gure polo teknologikoak

oraindik-orain hazten dagoena. San Mames gunek duen itxura ikusirik denok pozten gara. Eraldatze prozesu honetan ere UPV/EHUK Bilbori ekarpen polita egin dio.

Autobusa hartu baino lehen, galdera hau egin didate: Medikuntza Fakultate berria hemen laster ikusiko dugu?

Autobusa hartu eta 100 kilometroko bideari ekin diogu. Basauri, Galdakao, Zornotza, Durango, Ermua, Eibar, Elgoibar, Zarautz, Orio... autopistaren alde bietan enpresa ugari ikusten dira. Automozioa, makina tresna, aeronautika, elektronika, energia, fabrikazio aurreratuen teknologia... Eta arlo guzti horietan elkarlan hitzarmen ugari ditugula jabetzen gara; sarri esaten dena baino askoz gehiago. Sentsazio gazi-goxoa sortzen zait. Enpresa eta unibertsitatearen arteko harremana dugu hizpide beti. Diskurtso bera azken 20 urtetan. Bada diskurtso horrekin amaitzeko garaia. Euskal Herriko Unibertsitateak harreman sakona du euskal enpresekin. Duela gutxi, aeronautika arloan lan egiten duen enpresa talde garrantzitsu batek Fabrikazio Aurreratuen Teknologia Zentro berri bat martxan ipintzeko aukeratu gaitu. Bai, gure unibertsitateak enpresekin duen harremana gero eta sakonagoa da eta, azken lau urteetan, krisiak gogor jo duen garaian, 34,2M€ko inbestimenduak egin dituzte gurekin kolaborazio proiektuetan. Bidaian goazelarik enpresa guzti horiek ikusten ditugu eta sentsazio goxoa nagusitzen da.

Autopistatik ere Ipurua futbol zelaia ikusten dugu. Burura etorri zaizkit Eibar futbol taldearen balioak, unibertsitateak defenditu eta bultzatzen dituenak. Beste kirol elkarteekin bezala, Eibarrekin ere elkarlan hitzarmena daukagu eta transferentzia arloan ari gara lanean jarduera fisiko eta kirol zientzietako ikerlarien eskutik.

Donostiara heldu gara. Autobusetik jaitsi eta Campusera oinez joatea erabaki dugu. Kontxako paseoa gozatzeaz gain, Miramar Jauregitik bista ederra ikusteko parada daukagu. Bertan, UPV/EHUko Uda Ikastaroetan 10.000 ikasle baino gehiago izan dira aurten eta ikasle horien aniztasuna nagusi da ikasgeletan. Ederra urtero Euskal Herriko Unibertsitateak Donostiako hiriari egiten dion ekarpena. Jadanik 34 urte dira eta, datorren urteari begira, Donostia 2016 dela eta, programazio berezia eskaintzeko asmoa dugu.

Campusera heldu eta zientzia nonahi antzematen da. Gure bidai berezi honekin jarraitzeko aukera daukagu, baina oraingoan, nanoteknologian murgilduz, edo materia kondentsatuaren fisikan, materialen zientzian, polimeroetan, kimikan. Zientziaren bidai zoragarri honetan pasioa da sentitzen duguna, ezagutza sortzeko grina; hau da, jakin-min intelektualaren oinarrizko osagarri horietako bat.

Adibide pare bat emateagatik, nano-eskalan atxikidura-indarrak sortzen eta kontrolatzen ahalegintzen gara, edo propietate erdieroaleak dituzten tintak garatzen, grafenotik eratorritako materialen bidez. Aipatutako lehen ikerketa proiektuari esker, agian, Spiderman fikziotik gero eta urrunago daukagu. Bigarren proiektuari esker tinta eroaleak egin ahalko dira. Ikerlarien hitzetan *“aurrerapauso garrantzitsua izango da gailu elektronikoa ultrafinen hurrengo belaunaldirako material berriak sortzeko bidean; besteak beste, transistoreak, LEDak, eguzki zelulak eta fotodetektagailuak”*.

Hau da bai berrikuntzarako zutabe sendoak eraikitzea. Gure enpresetan berrikuntza egin ahal izateko ezagutza ezinbestekoa da eta hori, behin eta berriz gogoratzea komenigarria dela uste dut. Ezagutza eta ezagutzaren mila aurpegi kudeatzen dakiten pertsonak, hau da, doktoreak dira beharrezkoak. Ezagutzarik gabe ez baitago berrikuntzarik.

Baina zientziaz jarduteaz gain Gipuzkoan ahultasun egoeran dauden enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko eta beren iraunkortasuna ziurtatzeko laguntza ematen diegu Gipuzkoako Diputazioaren Garaituz programaren bidez.

Campuseko paseoa jarraituz bertsolarien soinua heltzen da gure belarrietara. Soinu berezia, metalezko soinua hain zuzen. Hurbildu eta sorpresa galanta, gure robot bertsolariak kantatzen ari dira! Tartalo eta Galtzagorri erakustaldia ematen ari dira, non eta, gure campusean eta Andoni Egaña txapeldun handiaren aldamenean.

Imajina dezakezue honen atzean zenbat teknologia dagoen! Erabiltzeko prest dagoen teknologia robotikan, telefonian, zuzentzaile ortografikoen arloan, itzulpen automatikoan, ahotsaren errekonozimenduan eta sintesian...

Bertso saioa amaituta, tabernara joan eta bertan lasai eta askatasunez, campuseko Hitzaren Gunearen ondoan, terrorismoaren biktimei buruz hitz egiteko parada izan dugu Kriminologia Institutuko ikertzaile esanguratsu batzuekin. Azken proiektuez komentatu digute eta, horien artean, Eusko Jaurlaritzak torturari buruzko azterlan bat agindu diela adierazi digu. Haren hitzetan: *“Orain arte, torturen gaineko ikerketak erakunde edo talde legitimoek egin dituzte, baina, oraingo honetan, ikerketaren legitimitatea Eusko Jaurlaritzaren ekimenez abiatzean datza. Bigarren gakoa da objektiboak izan behar dugula”*. Bizikidetzaren bidean ezinbesteko beste ekarpen bat, zalantzarik gabe.

Agurtzerakoan, aurreko gaiaren seriotasuna gainditzeko eta erdi brometan, galdera bat egin diot: *zer, Miguel de Cervantes aurkitu dugu?* Barrez agurtu gara.

Gipuzkoako Campusa utzi baino lehen Carlos Santamaria Zentroan gizarte-zientzien, zientzia juridikoen eta giza zientzien arloetan dauden ikerketa ahalmenaz jabetzen gara.

Arabako Campuserantz abiatzeko unea heldu da. Oraingoan bidaiak Bergara, Mondragon, Aretxabaleta edo Legutio bezalako herriak bisitatzera gonbidapena egiten gaitu. Paraje ederra eta berriz enpresa ugari eta lankidetzaz sendoak.

Campusera heldu baino lehen Santa Maria Katedrala bisitatzera joan gara. Eraikin zoragarria eta haren zaharberritze lanetan gure ikerketa talde batek lanean jardun zuen hasiera hasieratik. "Lanengatik zabalik" edo "abierto por obras", hemen ere Euskal Herriko Unibertsitateak ekarpen itzela egin dio Vitoria-Gasteizko hiriari.

Arabako Campusa ederra da eta hemen zaudeten guztiok campus honen txukuntasunaz gozatzeko aukera duzue. Baina hori egin baino lehen, goazen ardoaren paisaia bisitatzera. Mahastiak, ardoaren kultura, ingurumenarekin lan egin eta bizitzeko modu berezia dira. Horregatik, UPV/EHUK bere babesa eta bultzada irmoa eman eta ematen dio Arabako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturala UNESCOren Munduko Ondare izendatzeko hautagaitzari.

Zuen burua Arabako Errioxaren mahastien artean kokatzea eskatzen dizuet une batez. Udazkena bertan daukagu eta orrien kolorea aldatzen hasi da. Paisaia irudikatu eta gozatu. Zalantzarik ez, gure ahalegina merezi dute eta helburu horrekin lanean jarraituko dugu.

Arabako Errioxatik Campusera bueltatuz ardoa, txakolina, haragia eta gazta buruan izango dituzue agian. Bai, campus honetan elikagaietan ikertzen da, puntako ikerketa egin ere. Ekoizleekin lan egiten dugu giza kontsumorako elikagaien kalitatea eta segurtasuna ebaluatzen. Azpimarratzekoa da urtero Idiazabal Gaztaren Jatorrizko Izenaren Kontseilu Arautzailearekin egiten dugun lana.

Laskaray Ikerketa Zentrotik bisita egiten dugun bitartean, farmaziaren garapenean, zientzia forentsean, mikrobiologia molekularrean, parasitologian, immunoalergian edo nutrizioan lanean ari diren ikerketa taldeen eta azpiegituren ahalmenaz jabetzen gara. Ikusgarria benetan.

Gaur campus honetan elikagaiei buruz egiten den ikerketaren aurkezpena izan dugu Mertxe de Renobales doktoreak emanda. Eskerrik asko, Mertxe, eztabaidagai den gai honi buruz eman diguzun lezio interesgarriagatik. Ez ohiko den beste ikuspuntu zientifikotik emandako lezioa, hain zuzen. Orain ondo merezitako erretiroaz gozatzea espero dut, nahiz eta badakidan, besteak beste, Esperientzien Gelako ikasleen jakin-mina pizten jardungo duzula.

Eta azkenean Letren Fakultatera heldu gara. Hemen gaude euskal ikasketak, hizkuntzak, historia, geografia aztertzen dituzten ikerketa taldeen egoitza nagusi horietako bat. Baina hemen egonik, izen bat datorkit burura. 1915ko abuztuaren 20an Erreterian jaio zen gizon handi bat, Koldo Mitxelena doktorea. Beraz, aurten 100 urte beteko zituzkeen gure maisuak. Gure historian zehar, bada pertsona bat, arestian aipaturiko kuriositate intelektuala eta balioak ondo biltzen dituen, hori, zalantzarik gabe, Koldo Mitxelena doktorea da, Euskal Herriko Unibertsitateko kide ororentzat jarraitzeko eredu paregabea.

Gaur egun diru errezaren lagunek ziur aski ez lukete ulertuko nola, bizia behingoz bideratuta zeukanean Salamancan, utzi egin zuen eta, eskuzabaltasun osoz, Euskal Herriko Unibertsitatearen sorrera bultzatzeko etorri zen. Neurri handi baten berari esker Euskara eta gu hemen gaudela eta Letren Fakultate honen arima dela esaten ausartuko nintzateke.

Gure gaurko bidaian, Koldo Mitxelena maisuarena eta lezioa eskaini duen Mertxe de Renobalesena izan ezik, ez dut izenik aipatu. Guretan izan da. Unibertsitategintzan denok gara gakoak, guztiok gara beharrezkoak, ikasleak, irakasleak, ikertzaileak eta langileak. Unibertsitategintzan parte aktiboa izateak, dela ikasle, dela irakasle edo langilea, euskal gizartearekiko era bateko konpromisoa dakar. Danok daukagu konpromiso hori.

Hau esatean Lazkao Txiki bertsolariari entzundakoa etorri zait gogora. Batean bera eta Mattin Usurbilen zeuden eta Mattinek esan zuen:

Ikusten al dituk bi gizon horiek? Horiek dituk gizonak, ez gu, bi alu inora ailegatzen ez geranak.

Eta Lazkao-Txikik esan omen zion:

Ixilik egon adi, gu ere lurreraino ailegatzen gaituk eta!

Ba bai, Euskal Herriko Unibertsitatean ere guztiok ailegatzen gara euskal gizartearen lurreraino.

Efectivamente, llegamos a todos los rincones de la sociedad vasca. Me gustaría concluir recordando una vez más que el País Vasco será en gran medida lo que sea su universidad. La Universidad del País Vasco no cuenta con intereses ajenos a los intereses de la sociedad vasca. La superposición es completa y las prioridades, por tanto, exactamente las mismas.

Ez ahaztu, **Eman Ta Zabal Zazue.**